



# EBALUAZIOA DISKRI- MINAZIOAREN AUR- KAKO TESTUINGURUAN



Cofinanciado por el  
programa Erasmus+  
de la Unión Europea

Honako proiektua Europar Batzordearen laguntzarekin finantziatu da. Argitalpen honek, egileen iritziaz baino ez ditu jasotzen, Batzordea ez da hemen jasotako informazioarekin egin daitekeen erabileraren erantzule egiten.

# EDUKIA

<b>ZER DA EBALUAZIOA</b> ETA ZERGATIK DA BEHARREZKOA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO TAILERRETAN?	<b>3</b>
<b>SINTESI HONEN HARTZAILEAK</b> <b>ETA HELBURUA</b>	<b>4</b>
<b>AURREKARI TEORIKOAK</b>	<b>5</b>
<b>ERABILITAKO METODOLOGIA</b>	<b>7</b>
<b>EPE LABURREKO</b> <b>EBALUAZIO-TRESNAK</b>	<b>10</b>
<b>EPE LUZERAKO</b> <b>EBALUAZIO-TRESNAK</b>	<b>16</b>
<b>INKESTAK SORMEN-EBALUAZIOKO</b> <b>TRESNEKIN</b>	<b>21</b>
<b>ERANSKINAK</b> <b>ZER DA DISKRIMINAZIOA?</b>	<b>26</b>
<b>BAZKIDEEI BURUZ</b>	<b>29</b>

# ZER DA EBALUAZIOA

## ETA ZERGATIK DA BEHARREZKOA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO TAILERRETAN?

Ebaluazioa hainbat metodo konbinatuz eta esku-hartze espezifiko baten bidez, ezarritako helburu bat lortu den eta zein mailatan lortu den baloratu daiteke. Esku-hartze batek nahi eta aurreikusten diren ondorioak dituen jakiteko ere balio du. Esku-hartze bat edozer izan daiteke; lege berri bat, gizarte-politika oso bat edota diskriminazioaren aurkako borrokari buruzko tailer espezifiko bat. Ebaluazioak ikerketa zientifiko sozialetik eratorritako metodoak erabiltzen ditu, baina ez da ohiko ebaluazio-formulario estandarizatueta mugatu behar. Ebaluazioa sormen-bitartekoen bidez egin daiteke, esku-hartze baten arrakastari buruzko hainbat gauza jakiteko.

*“Ebaluazioak hainbat arrazoi praktikorengatik egiten dira: programekin jarraitu edo ez aintzat hartzeko, hauek hobetu, zabaldu edo murriztu behar diren erabakitze edota programa eta ekimen berrien erabilgarritasuna baloratzeko, programen kudeaketaren eta administrazioaren eraginkortasuna handitzeko eta programen babesleen erantzukizun-baldintzak betetzeko”<sup>1</sup>.*

<sup>1</sup> (Rossi, P., Freeman, H., & Lipsey, M. (2004). Evaluation: A systematic approach (7th ed.). Thousand Oaks, CA: Sage Publications#.)

Arrazoi horiek kezkarriak izan daitezke sortzaileentzat eta bideratzaileentzat; izan ere, “ebaluazioa” edo “eraginkortasuna” bezalako modak hitzek, “Negozio” kutsua baitute. Hauek aurre egiten behar diete presaz sortutako aurreiritzi eta erreakzioei sormen-tailerren eta diskriminazioaren aurkako borrokaren ebaluazioak eskaintzen diren jakintza zein ekintza praktikoak funtzionatzen duten jakiten lagunduko baitie. Hauek funtzionamendua ona den edo ez baloratzeko baliagarria izateaz gain, tailerren kalitatea kontrolatzeko ere balio du; azken finean, gure gizarteetan aldaketak eragiteko gai diren tailerrak bultzatu nahi baititugu. Ebaluazioak diskriminazioaren aurkako tailer sortzaile batek lor ditzakeen lorpenen frogaren frogardena da.

# SINTESI HONEN HARTZAILEAK ETA HELBURUA

Laburpen hori irakasleei, prestatzaileei, bideratzaileei, hezitzaile formalei eta ez-formalei, proiektuen kudeatzaileei eta koordinatzaileei zuzenduta dago. Batzuetan, GKEek eta elkarrekin baliabide gutxi izaten dituzte beren prestakuntzaren ebaluazio landua egiteko eta hori dela eta, askotan ez dituzte beren prestakuntza-ekintzak ebaluatzen edo estandarizatutako galdetegien bidez egiten bukatzen dute. Sintesi honen helburua epe laburrerako zein luzerako ebaluazioak burutzeko teknika berritzaileak ematea da.

Tresna horiek irakurlea prestatzen dute:

- Diskriminazioaren aurkako tailer sortzaileen ebaluazioaren garrantzia ulertzea
- Ebaluazioaren norainokoaren eta helburuen ideia bat izatea
- Diskriminazioaren aurkako tailerrak ebaluatzeko tresnak izatea
- Diskriminazioaren aurkako tailerrak ebaluatzeko metodo sortzaileak erabiltzea
- Diskriminazioaren aurkako tailerren epe laburreko eta luzeko ebaluazioa egiteko gai izatea.
- Parte-hartzaileek arrazakeriari eta diskriminazioari buruz duten autokontzientzia maila ebaluatzeko gai izatea, epe labur zein luzera.

# AURREKARI TEORIKOAK

Ebaluazioari hasi eman ahal izateko, honen helburuak eta jomugak ezartzen dira.

Honakoa da tailer bat diseinatzeko prozedura estandarra.

Tailerraren ebaluazioa horren ondoren egin daiteke, emaitzak ebaluatzen. Batzuetan emaitzaren sinonimo gisa erabiltzen den hitz bat «inpaktua» da, baina bi termino horiek bi gauza desberdin deskribatzen dituzte bi objektibo desberdin baitaizkate. Emaitzaren eta inpaktuaren arteko aldea aurrerago aztertuko dugu. Jarraian, tailerren zer alderdi ebaluatu daitezkeen eztabaidatuko dugu.

## Tailerraren zer alderdi ebaluatu daitezke?

Helburuak ezartzea ebaluazioaren lehen urratsa dela ezarri dugu. Tailerraren aurretik eta diseinuan zehar finkatzen dira. “Zer gertatu behar da tailerrean eta zer emaitza lortu behar dira?” Galderaren erantzuna dira.

CAADeko bazkideei eta bazkideei egindako inkesta txiki batean, aurkitu genuen erraztaile askok beren tailerren ebaluazioak egiten dituzten arren, beraiek direla helburuak finkatzen dituztenak, eta, ondoren, tailerraren ezarpen metodologikoari eta teknikoari buruzkoa ebaluatzen dutela, bai eta tailerretan ikasteko giro irekia sortzeari buruzkoa ere.

Inkestaren itemak “erabilitako metodoak xedetaldearentzat egokiak izan ziren” edo “tailerreko parte-hartzaile guztien galderak eta ekarpenak serio hartu ziren” galderen antzekoak dira, eta alderdi horiek ebaluatzea proposatzen da.

Jakina, helburu horiek ere beharrezkoak dira, baina tailerren kalitate- eta arrakasta-alderdien zati txiki bat baino ez dute betetzen. Parte-hartzaileek tailerra eman den baldintzekin, gaiekin edo animatzaileak ebaluatzeaz gain, ebaluazioak ikaskuntzaren emaitzak, portaera-aldaketak eta tailerrari esker hasitako ekintzak ere har ditzake<sup>1</sup>.

Hona hemen alderdi horiek betetzeko bideratzaileek ezar ditzaketen helburu batzuk:

Ikaskuntzaren emaitzak:

- Parte-hartzaileek diskriminazioaren eta arrazakeriaren dimentsioak ezagutuko dituzte
- Parte-hartzaileek gizarte-pribilegioen kontzeptua ezagutuko dute

Portaera-aldaketak:

- Parte-hartzaileek erreakzionatzearen garrantzia onartuko dute egoera diskriminatzaileen lekuko direnean
- Parte-hartzaileek beren nortasunari buruz hausnartuko dute

Tailerrari esker egindako ekintzak:

- Parte-hartzaileek babesa emango diete diskriminazioaren edo arrazakeriaren biktimei bizitza errealeko egoeretan
- Parte-hartzaileek legezko ekintzak abiaraziko dituzte ikusten edo jasaten duten diskriminazioaren aurka

Lantegiko baldintzekiko eta gaiekiko eta bideratzaileekiko gogobetetasuna:

- Tailerraren iraupena eta denbora-esparrua egokiak izango dira
- Bideratzaileak parte-hartzaileen beharrak hartuko ditu kontuan

## Zein da helburuaren / emaitzaren / inpaktuaren arteko aldea?

Aipatu bezala, helburuak lantegiaren diseinuan burutzean finkatzen dira, lantegiaren gauzatzea planifikatzeko eta proiektu baten helburu orokorrak lortzeko asmoz.

Helburu horiek lortzearen irismena eta esparrua desberdinak izan daitezke eta horrexegatik, erabakigarria da emaitza eta inpaktuaren arteko bereizketa egitea.

“Emaitzak” eta “inpaktua” terminoen artean nahasmena egon ohi da. Izan ere, bi termino desberdin dira, eta batzuetan esanahi desberdinak naiz aurkakoa izaten dituzte.

Askotan emaitza esku-hartzearen emaitza erreala eta zehatza dela onartzen da. Emaitzak alde

<sup>1</sup> <https://wirtschaftslexikon.gabler.de/definition/evaluation-32471>

aurretik definituta daude tailerrak emaitza horiek lortzeko diseinatzen baitira<sup>2</sup>. Nolabait esateko, emaitza hauek, parte-hartzaileengan zuzeneko ondorioak dira, hauek beraien ezagutza-mailan, naiz portaera-aldaketetan islatzen baitira.

Inpaktua, aldiz, epe luzera lortutako emaitzaren eragina da<sup>3</sup>. Bere irismena zabalagoa da eta ez da portaeran ikus daitezkeen berehalako aldaketetara mugatzen. Inpaktua, lortutako emaitzak parte-hartzailearengan duen eragin subjektibotzat har daiteke. Eraginaren ebaluazioak ikuspegi kualitatibo bat eskatzen du, aldaketaren esperientzia eta balorazio subjektiboak atzemateko. Lehen aipatutako testuan, Hardingek osasun publikoko esku-hartzearen munduko adibide bat ematen du: “Pertsona batek elikadura osasungarri bati buruzko informazioa jaso ondoren, baliteke elikadura-portaera aldatzea eta pisua galtzea. Hori da esku-hartzearen emaitza, aldaketa horren ondorio zuzena baita. Baina, aurrerago, elikadura-ohituretan gertatzen diren aldaketek eta pisua galtzeak segurtasun-ezaren sententzia gutxitzea ekar dezakete, bai eta pertsonaren zorientasun-sententzia areagotzea ere. Hori da esku-hartze sanitarioaren eragina, ez baitzen zuzenean planifikatu esku-hartzearekin, eta berez pertsonala eta subjektiboa baita”.

Beste adibide bat emateko, diskriminazioaren aurkako tailerretarako helburu motei buruzko atalaren adibideetako bat erabil dezakegu: “Parte-hartzaileek gizarte-privilegioen kontzeptua ezagutuko dute”. Helburu horren emaitza parte-hartzaileek tailerraren amaieran privilegio sozialen kontzeptua ezagutzea izango litzateke. Helburu horren inpaktua berriz: kontzeptu horien ezagutzak parte-hartzaileek beste pertsona batzuek sufritzen duten desberdintasunaz kontziente izatea eta egoera hau aldatzeko interesa izatea izango litzateke.

Azken adibideak erakusten duen bezala, emaitzak tailer bateko parte-hartzaileekin lotuta badaude,

inpaktuak beste pertsona batzuegan ere izan dezake eragina, adibidez, tailerlean parte hartu ez dutenengan, hala nola komunitate oso batengan edo gizarte osoarengan.

Aipatu bezala, ikertzaile batzuek tailer baten berehalako emaitza “Inpaktua” bezala definitzen dute eta “Emaitza” epe luzerako ondorioak gisa. Interpretazio desberdin horiek ezagutu nahi baditugu ere, guk “emaitza” terminoa erabiliko ditugu berehalako emaitza izendatzeko, eta “inpaktua” epe luzerako zeharkako efektu gisa.

## Ebaluazioaren egutegia eta iraupena

Aurreko multzoan ikusi dugu ebaluazioa berehalako efektuen naiz epe luzeko efektuak baloratzeko balio duela. Ebaluazioa burutzen den unea eta iraupena ebaluazio-jarduerak sailkatzeko beste modu bat da. Honek, Ebaluazio-tresnak erabiltzen diren unea eta errepikatzen diren ala ez adierazten du.

Emaitzak tailer baten epe laburreko ondorioetat jotzen baditugu, emaitzen ebaluazioa epe laburreko ebaluazio gisa eta inpaktuaren ebaluazioa epe luzeko ebaluazio gisa sailkatu beharko genituzke. Hala ere, hori engainagarria da, ezin baita inpaktuaren ebaluaziorik egin epe laburrean. Halere, epe luzerako ebaluazioa egon daiteke, bai tailer baten emaitzei dagokienez, bai haren eraginei dagokienez ere.

Ikaskuntzaren emaitzak, portaera-aldaketak edo tailerrari esker hasitako ekintzak, tailerra amaitu eta epe luzera baten ondoren tailerraren arrakastaren neurtzeko balio dezakete. Epe luzerako ebaluazio-tresnak (behaketak adibidez) epe luzeago baten zehar erabil daitezke, behin eta berriz (hala nola panel-inkestak, zeinetan galdera berak egiten baitzaizkie parte-hartzaile berei tarte desberdinetan) edo tailerra amaitutakoan, tailerraren emaitza bezala sortutako edozein ekintza ebaluatzeko balio du.

Emaitzak epe luzera ebaluatuz, tailer baten inpaktua antzeman daiteke, baina inpaktuaren ebaluazioak beste ikuspegi metodologiko bat eskatzen duenez, horrek gaituzte egiten du tresna multzo horren irismena.

2 Harding, A. (2014). What is the difference between an impact and an outcome? Impact is the longer term effect of an outcome. LSE Impact Blog. Escrito 11.11.2021. Extraído de: <https://blogs.lse.ac.uk/impactofsocialsciences/2014/10/27/impact-vs-outcome-harding/>

3 Hughes, R., Black, C. y Kennedy, NP. (2008) Public Health Nutrition Intervention Management: impact and Outcome Evaluation. JobNut Project, Trinity College Dublin. Recogido el 11.11.2021 en <https://blogs.lse.ac.uk/impactofsocialsciences/2014/10/27/impact-vs-outcome-harding/>

# ERABILITAKO METODOLOGIA

Zergatik eta zer ebaluatu aztertu ondoren, diskriminazioaren aurkako tailerrak nola ebaluatu aztertuko dugu.

Kapitulu honetan ebaluazioa diseinatzeko oinarrizko printzipioak eta metodo ezberdinak konbinatzearen garrantzia ikusiko dugu. Kapituluaren amaieran gida labur bat proposatuko dugu, diskriminazioaren aurkako sormen tailer baten ebaluazioa urratsez urrats planifikatzeko.

## Printzipio gidariak

Tailer baten ebaluazioa diseinatzerakoan, baliagarria izan daiteke printzipio orientagarri batzuk kontuan hartzea. Hurrengo atalean, gure ustez garrantzitsuenak diren printzipioetako batzuk garatuko ditugu.

## Metodoek bat etorri behar dute kausarekin eta testuinguruarekin

Garrantzitsuenak aukeratutako ebaluazio-tresnak tailerraren testuingurura egokitzea da. Tresna bat aukeratzean, honako gauza hauek hartu behar da kontuan: zeintzuk dira nire parte-hartzaileak? Zein da tailerraren eszenatokia? Zer ikasi nahi dut ebaluazio honekin? Zenbat denbora daukat ebaluaziorako? Tailerlean egindako saio bakoitza ebaluatuko dut, edo tailerra amaitutakoan ebaluazio orokor bat egingo dut?

Ebaluazio-tresna bat gauzatzea testuinguruaren bat etorri behar da. Aukeratutako instrumentua edo instrumentuak parte-hartzaileen, animatzaileen eta denbora erabilgarriaren beharretara egokitu daitezke.

Adibidez, hizkuntza-maila baxuagoa duten taldeen kasuan, gorputzaren edo irudien erabileran oinarritutako tresna bat egokiagoa izango da idaztea eskatzen duten tresnak baino. Hala ere, erantzunak behar duten tresna bat ere egokitu egin daiteke, esaterako, idazteko eskatu beharrean, marrazteko eskatuz.

## Parte-hartzaileen ikuspegia

Ebaluazio-prozesua diseinatzerakoan, kontuan hartu behar da, halaber, arrakastaren erreferentzia-puntu kuantifikagarri bat edo horren ulermen kualitatiboago bat neurtu nahi den (adibidez, parte-hartzaileek eskuratutako ezagutzei edo portaera-aldaketari buruz dituzten pertzepzioak). Tresna multzo honetarako bildu eta probatu ditugun tresnei dagokienez, ikuspegi kualitatiboa aukeratu dugu. Ebaluazio subjektiboen bilaketan filosofia konstruktibista bati jarraitzen diogu. Filosofia horrek baieztatzen du errealitatea gizakiek elkarrekin eraikitakoa zerbait dela eta hortaz, errealitate objektibo bakar batean oinarritu beharrean, norbanako bakoitzak duen errealitatearen pertzepzio subjektiboan interesatu beharko genukeela.

## Zintzotasuna

Ebaluazioaren zintzotasunak esan nahi du tailerretako ebaluatzaileek ez dutela prozesua itxaropen finkoekin hasi behar ezta tailerra buruan dituen emaitzen baieztatzeko tresna bezala ikusi behar. Prozesuari hasiera eman aurretik, beharrezkoa da: tailerlean lortutako lorpenekiko benetako interesa eta parte-hartzaileen iritziekiko jakin-mina izatea. Zintzotasunak halaber, emaitzak tailerraren diseinuan parte hartu zuten pertsonen eskura jartzeko helburua du. Ebaluazioak beti berrelikatu behar ditu tailerraren bideratzaileak, ebaluazioa helburu isolatua izan ez dadin, baizik eta tailerraren diseinua hobetzeko modu bat izan dadin.

## Erreflexibitatea

Printzipio gidari hori arestian aipatutakoarekin lotuta dago. Ebaluazioaren emaitzek diseinuarekin zerikusia duten pertsonak berrelkatu behar dituzte, eta tailerraren diseinuari buruzko hausnarketa eragin behar dute. Tailerraren diseinuaren eta erraztasunaren arduradunek diseinua ebaluazioaren emaitzen arabera aldatzeko eta egokitzeko prest egon behar dute.

## Metodoen nahasketa

Hainbat motatako ebaluazio-tresnak erabili behar dira parte-hartzaileen esperientzia eta kontakizunak guzti horiek jaso ahal izateko. Gure helburua gertaera ez "objektiboak" edo zehatzak ebaluatzean datzanez, garrantzitsua da tailer osoan zehar hainbat tresna ezberdin erabiltzea; horrela, parte-hartzaileen behaketak, ikuspuntuak eta esperientziak txertatu ahal izateko. Hainbat tresna eta ikuspegi erabiltzeak aukera ugari probatzen eta hauek funtzionatzen duten ala ez ikusten lagunduko digu.

Sormen-tailerren testuinguruan, baliagarria da, halaber, lantegiaren "fluxuan" sartzen diren eta ebaluazio-elementu mugatu gisa nabarmentzen ez diren metodo sortzaileak hautatzea eta sartzea. Horrek parte-hartzea susta dezake eta parte-hartzaileen testigantza zehatzagoak ekar ditzake.

Ebaluazioan metodo kuantitatiboak zein kualitatiboak erabil daitezke. Termino horiek ikerketa zientifiko sozialaren barruan bi ikuspegi bereizten dira: alde batetik, ikerketa kuantitatiboak zenbakiak, zenbaketa eta informazioaren sailkapena erabiltzen ditu; ikerketa kualitatiboak, berriz, ez ditu metodo horiek erabiltzen. Interpretazio hori partzialki baino ez da erabilgarria. Esan dezakegu metodo kuantitatiboek ez dutela arakatzen eta ezagutza berriak aurkitzen, lehendik dagoena probatzen baizik. Beraz, metodo kualitatiboak esploratzaileak dira eta ezagutza eta ikuspegi berriak sortu nahi dituzte. Metodo kuantitatiboak

estandarizatuta egon ohi dira (adibidez, inkesta estandarizatu bat, 1etik 5era bitarteko eskaletan erantzuteko aukera mugatuak dituen); metodo kualitatiboek, berriz, hasieran erabilgarria, interesgarria edo biltzeko modukoa denaren irismena mugatzen ez duten hainbat informazioak biltzeko interesa dute.

Bereizketa horren aplikazio praktikoan ez dugu ahaztu behar printzipio horiek elkarren osagarri direla eta elkar osatzen dutela, eta metodo bat aukeratzera aurretik, kontutan izan behar dugula zer ikertu edo ebaluatu nahi dugun. Adibidez, parte-hartzaileek tailer batean egindako ariketekin duten gogobetetasuna galdetegi estandarizatu baten bidez ebaluatu daiteke. Hala ere, parte-hartzaileen portaera-aldaketekin lotutako helburuak ezin dira baliabide estandarizatu bidez ikertu; aitzitik, ikuspegi kualitatiboa behar dute. Beraz, tailer baten ebaluazioaren diseinuan garrantzitsua da tailerrerako finkatutako helburu guztiak bete ditzaketen metodoen konbinazioa izatea.



# URRATSEZ URRATSEKO EBALUAZIORAKO GIDA

Hemen, urratsez urrats gida bat eskaini nahi dizugu, zure tailerraren ebaluazio-prozesuari ekiteko.

1. Ezarri zure tailerraren helburuak.
2. Galdetu nor den zure publikoa  
Publikoa ezagutzea funtsezkoa da ebaluaziorako tresna egokiak egokitu eta aukeratzeko.
3. Erabaki zenbat denboran zehar egingo duzuen ebaluazioan eta noiz burutuko den.  
Aldaketa ikusteko, tailerraren hasieran, amaieran eta tailerraren ondoren "azterketa" bat egin dezakezu.
4. Ebaluazioan nork hartuko duen parte eta prozesua planifikatu  
Nork egingo du? Nork aztertuko ditu emaitzak? Zer gertatuko da emaitzekin?
5. Aukeratu ebaluaziorako tresnak  
Hainbat helburu ebaluatzeko tresna desberdinak behar izan daitezke; tresnak konbinatzea gomendatzen da.
6. Egokitu ebaluazio-tresnak, beharrezkoa bada  
Egokitu zaituzte audientziara, egokitu zaituzte denborara, espaziora eta beste inguruabar batzuetara
7. Egin ebaluazioa tailerraren aurretik/bitartean/ondoren
8. Ebaluazioaren emaitzak biltzea eta horien esanahia aztertzea
9. Lantegiaren diseinuan eta errealizazioan inplikaturako pertsona guztiei emaitzen berri ematea

# EPE LABURREKO EBALUAZIO-TRESNAK

Hurrengo kapituluan, tailerrak epe laburrean ebaluatzeko tresna sortzaile batzuk aurkeztuko ditugu. Tresna hauek, tailer burutu heinean edota tailerra amaitutakoan erabil daitezke. Proposatzen diren tresna askok idatzizko dokumentazio gabe jasotzen dituzte parte-hartzaileen ekarpenak, horregatik, emaitzak diseinuan parte hartzen duten beste pertsona batzuekin partekatu ahal izateko, bideratzaileak tresnak aplikatzean direnean oharrak hartzea.

Hemen aipatutako tresnak proiektuaren diskriminazioaren aurkako tailer sortzaileen saio pilotuetan probatu dira. Aipatutako tresna askoren kasuan, gure esperientzia gehitu dugu: "Aholkuak bideratzaileentzat" izenpean.

## EXERCISE #1

### Zer elikagai dira?

**Helburua:** parte-hartzaileen egungo sentimenduak eta iritziak ulertzea, haiei buruz zuzenean galdetu gabe. Une horretan prest dauden bezain sakon partekatze askatasuna emanez.

**Denbora:** 3 minutu instrukziorako, minutu 1/ galdera

**Beharrezko materialak:** Ez da ezer behar

**Taldearen tamaina:** 3-12 parte-hartzaile (parte-hartzaile gehiago izanez gero, gehiegi luza daiteke)

**Deskribapena:** eska iezaeizu zure partaideei zirkuluan jartzeko eta pentsa dezatela beren egungo gogo-aldarteari (edo tailerrari edo tailerraren zati espezifiko bati) buruzko sentimenduak eta esperientziak irudikatuko dituen elikagai batean. Azalpenen bat eman behar dute elementu espezifiko hori zergatik aukeratu duten azaltzeko. Adierazpenek honelako zerbait izan behar dira: "Tailer hau niretzat janariaren izena izan zen, zeren..."

### Animatzailearentzako aholkuak:

- hainbat taldetan (bereziki kultura-desberdintasunak dituztenak) oso emankorra izan daiteke, baina baita deserosoa ere parte-hartzaile batzuentzat.
- Zirkulua ixteko ariketa gisa erabil daiteke, lerroan edo lerrotik kanpo. Zeregin horrek

sortzaileak izatera eta nola sentitzen diren adieraztera bultzatzen ditu parte-hartzaileak. Parte-hartzaileak janari baten aukeraketen inguruan erreakzionatzen ere hasi daitezke ("hori da nire plater gogokoena!"). Honek, taldearen kohesioa bultzatzeko balio dezake.

## EXERCISE #3

### Konpromisoa har dezakedan jardunbide egokia

**Helburua:** pertsonen pribilegioei, aurreiritziei eta diskriminazioari buruz duten kontzientziazioa ebaluatzea, eta parte-hartzaileak eragile aktibo bihurtzea

**Denbora:** 10 minutu

**Beharrezko materialak:** paper handi bat, Post-It-ak

**Pertsona kopurua:** nahi beste pertsona

**Deskribapena:** tailerren amaieran, pertsona bakoitzak ekintza on bat idazten du post-it batean bere eguneroko bizitzan arrazakeriaren eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko. Banan-banan, parte-hartzaileek post-it horiek rotafolio paper batean itsasten dituzte eta beren ideiak taldearekin partekatzen dituzte.

*EXERCISE #4***Bost hatz**

**Helburua:** pertsonen tailerraren alderdi eta ikaskuntzei buruz dituzten pertzepzioak ebaluatzea

**Denbora:** 10-20 minutu, taldearen tamainaren eta ekarpenen konplexutasunaren arabera

**Beharrezko materiala:** errotafolio bat edo arbel bat, errotuladoreak eta ohar itsasgarriak (5 parte-hartzaile bakoitzarentzat)

**Taldearen tamaina:** 5-15 parte-hartzaile

**Deskribapena:** tailerraren amaieran, parte-hartzaile bakoitzak errotulagailu bat eta bost ohar itsaskor jasoko ditu, eta eskuaren hatz bakoitzeko bat betetzeko eskatuko zaio. Hatz bakoitza ebaluatuko den alderdi espezifiko bati dagokio. Parte-hartzaileei laguntzeko, esku handi bat marrazten da arbelean eta hatz bakoitzari dagokion esanahia idazten da. Parte-hartzaileek 5-10 minutu dituzte prozesuari buruz hausnartzeko eta post-it-ak idazteko. Ondoren, parte-hartzaileek arbelean itsasten dituzte, eta ebaluazioaren zati bakoitza dagokion hatzean jartzen dute. Hori egiten duten bitartean, parte-hartzaileei adierazgarriena iruditzen zaien alderdia ozen partekatzeko eska dakieke. Horrela, tailerreko ebaluazioen eta parte-hartzaileek lortutako ikaskuntzaren irudi kolektiboa sortzen da. Hortik abiatuta, hausnarketa labur bat egin daiteke taldean, edo parte-hartzaileak libre utz daitezke eskua behatzeko eta beren ikaskuntza ikaskideenarekin alderatzeko.

**Bideratzailearentzako aholkuak:** aldaketa txiki batzuekin, ebaluazio-tresna hau helburu espezifiko ezberdinetara egokitu daiteke. Parte-hartzaileek alderdi metodologikoei eta lantegiaren funtzionamenduari buruz dituzten pertzepzioak ebaluatzeko erabil daiteke; parte-hartzaileek jardueretan duten gogobetetze-maila, ongizatea eta inklusioa, talde-dinamikak eta harremana hauteman ditzake, eta ikaskuntza espezifiko probatu dezake. Tresna dimentsio batean edo bestean orientatzeko, eskuko hatz bakoitzari esleitutako sarrera kontu handiz kalibratu eta diseinatu behar da. Sarrera zenbat eta konplexuagoa izan, orduan eta introspekzio-maila handiagoa

eskatuko da, eta hausnarketa- eta idazketa-faserako denbora gehiago beharko da.

Tresna hori lineako testuingurura egokitu daiteke, Jamboard-a bezalako arbel zuri bat erabiliz, non parte-hartzaileek modu sinkronizatuan elkarreragin dezaketen.

*EXERCISE #5***Banakako eskulturak**

**Helburua:** parte-hartzaileek tailerrari buruz dituzten pertzepzioak ebaluatzea. Tresna honek parte-hartzaileen emozioen, desioen eta beldurren dimentsio pertsonala bereganatzen laguntzen du. Taldearen dinamika, tailerrean parte hartzen dutenen arteko harremanak eta jardueretan parte hartzen dutenen erosotasun- eta ongizate-maila ebaluatzeko ere erabil daiteke. Ekarpentak egokituz, animatzaileak eskulturen metodoa ere erabil dezake parte-hartzaileen ikaskuntzak eta funtsezko aldaketak lantzeko.

**Denbora:** 15-30 minutu (taldearen tamainaren, ekarpenaren konplexutasunaren eta ikertutako elementuen arabera)

**Beharrezko materiala:** bat ere ez, baina mugitzeko nahikoa leku egon behar da

**Taldearen tamaina:** 10-25 parte-hartzaile

**Deskribapena:** bideratzaileak zirkuluan jartzeko eskatzen die parte-hartzaileei. Parte-hartzaileek begiak itxi behar dituzte eta berehala erantzun behar diete gorputzarekin bideratzaileak esaten dituen hitzei. Erreakzio horiek parte-hartzaileen emozio eta sentimenduei, taldeko giroari, haien gogobetetzeari, prestakuntzaren hurrengo urratsetarako nahi eta itzaropenei, ikaskuntzei eta abarri buruzkoak izan daitezke.

Bideratzaileak hitz egiten duen bitartean, parte-hartzaileek beren sentimenduak irudikatzen dituen gorputz-jarrera hartzen dute. Ondoren, begiak ireki ditzakete, jarrera, irudia eta jarrera mantenduz. Geldialdi bat egin eta ingurura begiratu dezakete beste eskulturak behatzeko eta beraienari gehien hurbiltzen zaionari hurbildu daitezke. Ondoren, eskultura talde txikiak osatuko dituzte eta talde osoari erakutsiko dizkiote. Eskultura taldeak

ikusten dituzten parte-hartzaileek izenburu bana emango diete. Hortik aurrera, laburpen eta hausnarketa jarduera labur bat has daiteke taldean, eskulturekin sortu denetik abiatuta.

**Bideratzailearentzako aholkuak:** parte-hartzaileek gorputz-adierazpenaren teknikekin pixka bat ohituta egon behar dute; bestela, zailtasunak izan ditzakete beren ideiak eta emozioak adierazteko. Horrela bada, baliteke eskulturak horren interesgarriak ez izatea. Honako tresna gorputz-hizkuntzara ohituta ez dagoen talde batean erabili nahi izanez gero, erabilgarria da gorputz-erraztasuneko eta -adierazpeneko ariketekin prestatzea edota pixkanaka horretara iristea, entrenamenduan gorputz-adierazpeneko ariketa txikiak eginez. Tresna horren azken fasea (eskultura-taldeak osatzea) antzerkigintzatik dator, eta litekeena da hainbat arrazoiengatik besteekin kontaktu fisikoa izatea gustuko ez duten pertsonentzat lorgarria ez izatea. Horrelakoetantaldeko eskulturak osatzerakoan parte-hartzaileei gainerakoekin kontakturik ez izateko eskulturak sortzeko eskatu diezaiekegu. Ebaluatzeke modu sortzaile eta fisikoak proposatu aurretik, beti da garrantzitsua parte-hartzaileen adostasuna, mugak eta ongizatea egiaztatzea.

Gainera, gorputz-adierazpenean eta adierazpen sinbolikoan zentratzen diren metodoekin ez da erraza bideratzailearentzat erantzunaren ideia argia eta berehalakoa izatea. Hortaz, funtsezkoa da taldeak hausnarketarako denbora bat ustea, parte-hartzaileekin proposatutako eskultura eta irudien interpretazio zuzena eta partekatua egiteko. Azkenik, komenigarria da eskulturak argazkiekin eta bideoekin dokumentatzea, geroago ebaluazioaren emaitzak berriro aztertu ahal izateko.

Izan sortzailea. Ebaluazioa hainbat helburutara bidera dezakezu, ekarpenak zabalduz eta eraldatuz. Adibidez, ikaskuntza-giroa ebaluatu nahi badugu, eskultura bat sortzea bezalako ekarpenak erabili ditzakegu.

- Nola sentitu zara taldean?
- Nolako izan da zure parte-hartzea jardueretan?
- Zein izan da besteekiko harremanak?
- Nolako izan da taldearen giroa?

... eta horrela hurrenez hurren.

Arrazakeriaren eta diskriminazioaren aurka erreakzionatzeko tresna berrien ezagutza edo ikaskuntza ebaluatu nahi badugu, galderak egin ditzakegu honako hauekin hasita: «Sortu eskultura bat».

- Diskriminazioari aurre egiteko ikasi duzun tresna berri bat irudikatuz
- Nola sentitzen zara orain eguneroko bizitzako diskriminazioaren aurka jarduteko?
- Nolako prest sentitzen zara arrazakeriaren eta diskriminazioaren aurka hitz egiteko?
- Antzeztu zeure buruarengan nabaritu duzun aldaketa

Halaber, tresna hau egokitu dezakezu tailerraren “aurretik” eta “ondoren” arteko aldaketa atzemateko.

---

#### EXERCISE #6

### Nola sentitzen zara?

**Helburua:** parte-hartzaileek prestakuntzarekiko dituzten sentimenduak eta emozioak ebaluatzea, ikaskuntza-giroa, talde-dinamika, sentimenduak, konfiantza edo konpromisoa baloratzea diskriminazioaren aurkako ekintzei ekiteko (helburu horiek lortzeko, sarrera aldatu egin behar da)

**Denbora:** 15-30 minutu, taldearen tamainaren arabera

**Taldearen tamaina:** 8-15 parte-hartzaile

**Beharrezko materiala:** bat ere ez, baina zirkulu batean zutik egoteko leku nahikoa behar da

**Deskribapena:** parte-hartzaileak zirkulu batean zutik jartzen dira. Lehenengo parte-hartzaileak (A) (B)-ri ebaluatuko den elementuetako bati buruz “Nola sentitzen zara?” galdetu behar dio. B-k labur-labur erantzun beharko du hitzekin. Ondoren, (A- k (B)-ren hitzak irudikatu beharko ditu, bere gorputzarekin irudi bat sortuz. (A) -ren ondoan dauden bi pertsonak ikusi eta entzun dutena islatzen edo erreakzionatzen duen beste irudi bat sortu beharko dute berehala. Jarraian, (B)-i galdera bera egin beharko dio hurrengo txandako beste parte-hartzaile bati.

Kontuz: parte-hartzaileek gorputz-adierazpenaren teknikekin pixka bat ohituta egon behar dute; bestela, baliagarria da prestakuntzan ariketekin prestatzea. Tresna hori problematikoa izan liteke parte-hartzaileen arteko kontaktu fisikoa zaila den testuinguruetan. Kasu honetan, komeni da kontakturik gabeko aukera bat hartzea.

**Bideratzailearentzako aholkuak:** tresna hau bereziki egokia da emozioak esploratzeko eta partekatzeko, kontzeptu intelektualak adierazteko baino gehiago. Hala ere, bere ikaskuntzen banakako eta taldeko pertzepzioa ebaluatzeko erabil daiteke. Helburu espezifikoko atzemateko, ziurtatu informazio zehatza ematen duzula. Horretarako, "Nola sentitzen zara?" Galderak zeri egiten dio erreferentzia argitu beharko duzu, eta horren arabera egin.

Adibidez: "Tailerra burutu ondoren, nola sentitzen zara..."

- Arrazakeriari eta diskriminazioari buruz?
- Zure pribilegioei buruz,
- Diskriminazioaren lekuko zarenean,
- Zure eguneroko bizitzan arrazakeriaren eta diskriminazioaren aurkako neurriak hartzeari buruz?

Garrantzitsua da parte-hartzaileen hitzezko erantzunak nahiz gorputz- eta adierazpen-erreakzioak jasotzea eta dokumentatzea. Argazkiak eta bideoak erabilgarriak izan daitezke.

Metodo honek parte-hartzaileen inplikazio emozionalaren maila ebaluatzea ahalbidetzen du. Beraz, txosten-tresna gisa ere erabil daiteke, prestakuntzaren amaieran edo prestakuntzaren erdian, bereziki saio potentzialki abiarazleak eta emozionalki bizien ondoren, diskriminazioaren aurkako prestakuntzetan gerta daitezkeen bezala.

---

#### EXERCISE #7

### Hartu, utzi

**Helburua:** autoebaluaziorako tresna bat eskaintzea eta ikaskuntzaren emaitzak eta parte-hartzaileengan egon daitezkeen aldaketak ebaluatzea

**Denbora:** 15-30 minutu taldearen tamainaren

arabera

**Pertsona kopurua:** 10-20 parte-hartzaile

**Beharrezko materiala:** bi kutxa, paper zatiak edo txartelak (baina jarduera ahoz ere egin daiteke edo kartel/arbela batean idatziz)

**Deskribapena:** azken saioaren amaieran, parte-hartzaileak tailerraren esperientziari buruz hausnartzera animatu behar zaie. Bi paper zati jasoko dituzte: lehena, tailerlean ikasi eta etxera erama nahi duten gauza bat idazteko (ikasketa bat, tresna bat, aldaketa bat, etab.) eta, bestea, beraien bizitan atzean utzi nahi duten zerbait idazteko (aldez aurretik zuten uste bat, okerreko ideia bat, aurreiritzi bat edo behar ez duten zerbait). Jarraian, orriak horiek bi laukien barruan kokatu behar dira: "Eraman nazazu" laukia edo "utzi" dioen laukia. Guztiak amaitzen direnean, animatzaileak ozenean irakurri beharko du kutxa bakoitzaren barruan dagoena eta norbaitek zerbait gehituko nahi duen galdedua beharko du. Amaitzean, hausnarketa labur bat egin daiteke taldean.

**Bideratzailearentzako aholkuak:** funtsezkoa da parte-hartzaileei hausnartzeko eta idazteko denbora nahikoa ematea. Ez azkartu fase hau, esperientzia sintetizatzeke eta lantzeko unea baita. Parte-hartzaileek erantzun zehatzak ematea gomendatzen da. Tresna hau online-eko testuinguru batera ere egokitu daiteke arbela digital bat erabiliz.

Tresna hori tailerreko saio bakoitzaren ondoren bitarteko ebaluazio gisa eta prozesuaren ebaluazio gisa ere erabil daiteke. Kasu horretan, parte-hartzaile bakoitzari bi gutun-azal eman dakizkioke lehenengo saiotik, eta horietan tailerreko saio bakoitzaren amaieran txartelak gehitu eta atera.

---

#### EXERCISE #8

### Ikusi etorkizun berria

**Helburua:** parte-hartzaileak tailerlean zehar sortutako aldaketaren ideia aplikatzeko prest dauden egiaztatzea.

**Denbora:** 15-30 minutu, taldearen tamainaren arabera

**Pertsona kopurua:** 10-25 parte-hartzaile

**Beharrezko materiala:** bat ere ez, baina leku nahikoa egon behar da parte-hartzaileak mugitzeko

**Deskribapena:** parte-hartzaileek espazio seguru bat aukeratu eta begiak itxita erlaxatzeko eskatzen zaie. Bideratzaileek musikarekin edo gorputzaren erlaxazioa gidatuz lagun diezaiekete. Erlaxatuta daudenean, prestatzaileak tailerlean pentsatzeko eta etorkizun hurbilean egin nahi dituzten aldaketei buruz hausnartzeko eskatuko die. Denbora bat eskaini behar zaie etorkizuneko egoera zehatz bat ondo imajina dezaten. Orduan, momento xehetasunak imajinatzen laguntzeko, bertako espazioa, inguruko pertsonak, koloreak, soinuak, usainak eta abar deskribatzeko eskatu diezaiekezu.. Utzi denbora pixka batean esperimintatzen emozioak azalera daitezten.

Prozesua amaitzean, eskatu iezaizu arnasa sakon hartzeko eta erlaxazio-egoeratik irteteko. Bukatzean, emozioak partekatu nahi dituztenei emaezu aukera.

**Bideratzailearentzako aholkuak:** egoeran murgiltzeak emozio gogorak ekar diezazkieke parte-hartzaileei, eta, beraz, eman behar duten espazioa gertatutakoa partekatzeko eta adi egoteko.

Batzuentzat zaila izan daiteke behatzailetik inplikatu izatera pasatzea; zailtasun horren inguruan ohartarazi eta estresik eta betebeharririk gabe saia daitezten gonbida ditzakezu.

---

#### EXERCISE #9

### Helburua

**Helburua:** aurreikusitako ikaskuntza-emaitez zein neurritan lortu diren ebaluatzea

**Denbora:** 10 minutu tailerraren amaieran

**Beharrezko materialak:** Errotafolio-paperak, errotuladoreak

**Pertsona kopurua:** nahi beste

**Deskribapena:** paper orri handietan, marraztu zirkulu zentrokideak (dardo mahai bat bezala). Orri bakoitzaren goiko aldean, idatzi tailerraren emaitzei buruzko baieztapen bat: adibidez “nire pribilegioak berriz aztertu ditut”, “Diskriminazio-egoeretan portaera berriak aurkitu ditut” eta abar. Eskatu parte-hartzaileei baieztapenarekin zein puntutaraino dauden ados eta ondoren adieraz puntu batez paperean puntu batez. Baieztapenarekin guztiz ados bagaude, puntua erdi erdian kokatu beharko dugu, gure adostasuna geroz eta txikiagoa den heinean, hemendik aldenutako kokatu beharko dugu.

**Bideratzailearentzako aholkuak:** ebaluazioa aho batez egitea nahi ez bada, emaitzak sakonago azter daitezke truke-zirkulu batean edo eztabaida batean, parte-hartzaileei buruzko informazio zehatzagoa lortzeko.

---

#### EXERCISE #10

### Egunerokoa

**Helburua:** erreflexibitatea eta sormena areagotzea; emaitza bat sortzea tailerraren amaieran

**Denbora:** 10-15 minutu tailerreko egun bakoitzaren amaieran

**Beharrezko materialak:** koadernoak eta boligrafoak parte-hartzaile bakoitzarentzat

**Taldearen tamaina:** edozein tamaina

**Deskribapena:** parte-hartzaileek koaderno bat jasoko dute tailerraren hasieran. Hau eguneroko gisa erabili beharko dute, bertan tailer bakoitzaren inpresioak idazteko. Koadernoan idazteko denbora bate mango diegu tailerreko saio bakoitzaren ondoren. Parte-hartzaileei tailerlean zer sentitu, pentsatu edo deskubritu duten, gustatu zaiena, ez zaiena gustatu, proposamenak, taldeari buruz pentsatzen duten eta bestelakoak labur-labur idazteko eskatuko zaie saio bakoitzaren bukaeran. Parte-hartzaileei koaderno hau inork ez duela ikusiko azaltzen zaie, baina tailerraren bukaeran, eguneroko honekin lotutako produktu bat sortzeko eskatuko zaie. Emaitza hori bakarrizketa, antzezlan txiki bat edo antzezpenen bat izan daiteke.

Parte-hartzaileek egunerokoa erabili beharko dute abiapuntu gisa eta tailerrean ikasi eta probatutako ezagutza, teknikak eta ariketak erabili.

**Bideratzailearentzako aholkuak:** garrantzitsua da parte-hartzaileei idazteko eta hausnartzeko denbora nahikoa ematea. Ebaluazio-tresna hori arrakastaz aplikatu zen identitateari buruzko antzerki-tailer batean. Parte-hartzaileek ikasitako antzerki-teknikak erabili zituzten, eta bakoitzak 2 minutuko antzezpena taularatu zuen azken egunean. Irudikapen horiek sortzaileak izan ziren eta erraztaileek ariketak nola hautematen ziren ikusteko aukera izan zuten, eta zein teknika ziren eraginkorrenak ebaluatzeko aukera eman zuten.

# EPE LUZERAKO EBALUAZIO-TRESNAK

**Ikerketa-fasean, gure elkarrea ikertu genuen. Ikerketa burutu ondoren konturatu ginen epe luzeko ebaluazioa guztion gabezia bat zela. Geroago, adituekin egindako elkarrizketetan, konklusio berberera iritsi ginen. Diskriminazioaren aurkako borrokaren munduko profesional eta prestatzaileok, irmoki sinesten dugu parte-hartzaileei gustatzen zaizkien jarduerak eraginkorrak direla, hau da, Erabiltzen ditugun metodoetan sinesten dugu eta ontzat jotzen ditugu vaina hau joera epistemologiko baten emaitza izan daiteke; tresnak eraginkorrak izan daitezke giza faktorea kontuan hartu gabe, gure gizartea teknologian konfiantza handia duen kultura batean oinarritzen baita.**

## Epe luzeko ebaluazioaren onurak

Diskriminazioaren aurkako borrokako profesionalok ematen ditugun prestakuntzak epe luzera eraginkorrak diren egiaztatu behar ditugu. Prestakuntzaz gain, parte-hartzaileen bizitzako hainbat eremurik prozesuan eragina dutela kontutan izan behar dugu, hala ere, gure prestakuntza-jardueren epe luzeko emaitzak ebaluatzeak haien eraginkortasuna hobetzea eta emaitzak beste prestatzaile eta profesional batzuekin partekatzea ahalbidetzen digu.

Gainera, emaitzak epe luzera aztertzea (emaitzak zein inpaktuak), gure metodologia hobetzea eta ebaluazioaren garrantziaz jabetzea ahalbidetzen du.

Hurrengo orrialdeetan emaitzak epe luzera ebaluatzeko 3 tresna azalduko ditugu (eragina ebaluazioarekin aztertu beharreko beste arlo bat den arren, 3. kapituluaz azaltzen den bezala emaitzetan zentratzea aukeratuko dugu).

## Aldaketa Esanguratsuenaren (AE)

Proiektu bakoitzaren helburua aldaketa bat bultzatzea denez, tresna honek aldaketa horiek guztiak jasotzea du helburu. Aldaketa guztiak jaso ahal izateko, behaketa neutralaren ordez autopertzepzioan oinarritzen da.

Tresna honek indibidualki, taldeka, instituzionalki, intelektualki, emozionalki, gorputzean edota portaeran ematen diren edozein aldaketak hartzen ditu kontutan. Kasu honetan ere, garrantzi gehiago ematen zaio gizakietan gertatzen diren aldaketei "datu objektiboak" baino. Aldaketa

Esanguratsuenaren (AE) helburua aldaketak bultzatutako istorio subjektiboak biltzea eta parte-hartzaileen artean jasotako historiei buruzko eztabaida erraztea da.

Tresna hau, epe luzeko proiektuetarako erabiltzen da (hilabete zein urteetako iraupena duten proiektuetan) aldaketek denbora behar izaten baitute hautemateko. Hala ere, honako tresna hau bere oinarri eta egitura mantendu ezker, beste jardueratarako egokitu daitekeela iruditzen zaigu dugu; esaterako tresna hau, geroago azalduko dugun bideo parte-hartzaileen metodoarekin konbinatu daiteke. Era berean, irakurleak beraien jarduerara espezifikoko burutzerakoan tresna hau kreatiboki moldatu eta erabiltzera animatu nahi ditugu.

Aldaketa Esanguratsuenaren (AE), Bangladeshen<sup>1</sup> parte hartzeko landa-garapenerako programa konplexu baten ebaluazioari lotutako erronka batzuei aurre egiteko asmatu zen, baina gaur egun, nazioarteko garapen-erakunde askok erabiltzen dute. Sektore honetan ohikoa den adierazle kuantitatiboetan oinarritutako ikuskapen konbentzionalarekiko erabateko aldaketa egiten du. Aldaketa Esanguratsuenaren tresnak, markatzaile kuantitatiboak erabili ordez, aldaketari buruzko "historiak" noizbehinka biltzea eta partaidetzari esker hauek interpretatzea eskatzen du.

Tresna honek, ebaluazio talde batek kudeatutako aldaketa historiak biltzeko ziklo batzuk aurreikusten

1 Davies, R. J. (1996). "An evolutionary approach to facilitating organisational learning: An experiment by the Christian Commission for Development in Bangladesh". Swansea. Reino Unido: Centre for Development Studies, [online]: <http://www.swan.ac.uk/cds/rd/ccdb.htm>.



ditu. Horrela, proiektu batean inplikaturako eragile nagusiak jasoz.

Tresna honek, hemen azaltzen ez diren zazpi urrats klabe ditu (Davies, 1996). Guk tresna hau garapen-programetara moldatu dugu, diskriminazioaren aurkako borrokara egokitzen saiatzen garelako. Horregatik guk honako urrats hauek proposatzen ditugu:

**1. Gainbegiratu diren aldaketa-eremuak hautatzea.** Aldaketa-domeinuak historia mota desberdinak bereizteko erabiltzen diren aldaketa kategoriak dira. Tresnaren bat erabiltzea proposatzen da, hala nola *brainstorming*-a eta gero antzeko ideiak taldekatzea eta gehien errepikatzen diren hitzak bozkatzeko. Diskriminazioaren aurkako lanean: “diskriminazioaren ezagutzaren aldaketa” edo “diskriminazioa aitortzeko trebetasunak” eremuak izan daitezke, “Norberaren jarrerari buruzko autokontzientzia” edo “ekintza arrazista baten aurka erreakzionatzeko joera”, eta abar.

**2. Ezagutza, trebetasunak, jarrera, portaera, parte-hartzea, ahalduak** gure proiektuan guretzat garrantzitsutzat jo ditzakegun termino orokorrak izan daitezke. Istorioen gaia nahita galtzen uztea ere aukera bat izan daikete eta horrelako galdera “zure bizitzako aldaketarik handiena...” batez bakoitza hastea.

**3. Hautaketa-talde bat ezartzea.** Hautaketa-talde batek kudeatuko du AE prozesua, eta jasotako istorioen artean batzuk hautatuko ditu. Parte-hartzaileen taldeak bideratzailearekin batera egin dezakete paper hau, baina testuinguruaren arabera egokitu daiteke.

